



EUSKADIKO TURISMO ARDURATSUKO POLITIKA

EUSKADI helmuga turistiko gisa garatzeko eskumena duen instituzioa eta garapen turistiko jasangarria bermatzeko kudeaketa-neurriak hartzearen arduraduna izaki, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu du garapen turistikoko eredia ezartzeko. Egungo eta etorkizuneko eragin ekonomiko, sozial eta ingurumenekoak kontuan hartuko dituen eredu horrek aukera emango du bisitarien, inguruaren, komunitate anfitrioiaren eta enpresa zein industria sektorearen beharrak asetzeko.

Testuinguru horretan eta Turismo Jasangarriaren Mundu Gutunak jasotzen dituen printzipioak bere eginez, turismo arduratsurako estrategia ezarri da. Euskadin garapen turistiko jasangarriko eredia garatzea da asmoa, ekosistemen, tokiko komunitatearen eta ondare kulturalaren errespetuan oinarrituta. Politikan ondoko helburuak ezarri dira:

- Jarduera turistikoa bultzatzea, bere eragin positiboa hobetuz eta sor daitezkeen eragin negatiboak ekiditeko eta kudeatzeko mekanismoak garatuz.
- Turisten zein bertako biztanleen gogobetetzea hobetzea; turismoaren alorrean hartzen diren erabakietan bertakoen ekarpenak ere kontuan hartuko dira.
- Herritarren bizi-kalitatea hobetzea, bisitariaren eta bertakoaren arteko elkarrizketa eta hartu-emana sustatuz eta bisitatzen gaituztenen integrazioa bultzatuz.
- Bertakoen zein turisten segurtasuna eta osasuna zaintzea, prebentziorako eta arreta integralerako tresnak aplikatuz, betiere gizartearen ongizatea etengabe bilatzeko ahaleginean.

Euskadin turismoa dinamizazio ekonomiko, sozial eta ingurumeneko tresna bihurtzearen alde egin dugu. Horrenbestez, garapen jasangarriko ereduak hartzeko aurrerapausoak eman ahalko ditugu, ingurumen-aniztasunaren, kulturaztasunaren eta erantzukizun sozialaren mesede.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko Apirilaren 22an.



Iñigo Urkullu Renteria